

EURIYA



(DENAK DIYOTENA)

Ara nik nola bi nekazari
 jolasten lengo astian,
 entzun nituben Pello Mariren
 ardotegiko atian.
 Batek buruba arraskatubaz,
 abua bete betian,
 —atoz kontura, esaten ziyon,
 atoz nerekiñ batian,
pulamentuzko arrazoyera
 zure erori zaitian.
 Euri premiya aundiya dago
 eziñ esan ainbestian;
 baba, illarra, aza, tipulak
 porru perrejill nastian,
 lur egarriyak galdubak dauzka
 guretzat suerte charrian.
 Lau euri tanto ezditu egiñ
 iya bi illabetian,
 euriyen ordez ego-aizia
 iguzkiyare tartian,
 ala legorrak, aize epelak
 aifñ seta charrez eustian,
 denak dakigu gaitz ori dala

nekazariyen kaltian.
 Baña alare beifñ edo beste
 urte ona izatian,
 sari, artuak ta sagastiyak
 ugaritsu ikustian,
 eta orduban nekien truka
 lau kuarto irabaztian,
 esaten degu ¡konforme gera!
 ¡konforme onenbestian!
 orrengatikan naiz euri gabe
 Pachi, konforma gaitian.
 —Pillipe, ondo mintzatzen zera
 ederki zure ustian,
 dirudizula diruba palaz
 sartzen dezula echian.
 Baña kolpian asarreturrik
 diyo errabi puertian:
 —¿Noiz arte onek iraun biardu
 beste amabi urtian?
 —Ezta euririk, Pachi neria
 egon zindezke pakian,
 Arana jaunak pelota plaza
 bukatzen duben artian.

19 Abril 1893.

V. IRAOLA.

